



2019 OTSAILA - AUZO BATZARRAK ASAMBLEAS MUNICIPALES - FEBRERO 2019 NEGUA - INVIERNO

Auzoa Barrio	ARETA	
Data Fecha Ordutegia Horario Lekua Lugar	2019-02-11 19:05 – 20:25 Kultura Etxea / Casa de Cultura	
Bertaratutakoak Asistencia	<p>*Ordezkaritza politikoa representación política</p> <p>MAHAIAN:</p> <ul style="list-style-type: none">- Natxo Urkixo Orueta (alkatea) (EH BILDU)- Amets Meatza Castañares (EH BILDU)- Jon Ander Altube Lazkano (EH BILDU)- Ander Añibarro Maestre (EAJ-PNV) <p>HERRITARREN ARTEAN:</p> <ul style="list-style-type: none">- Isabel Bóveda Urioste (EH BILDU)- Iñigo Martínez Cerrillo (EH BILDU) <p>*Udal teknikariak técnicas/os municipales</p> <ul style="list-style-type: none">-Almudena Fernández (Udal arkitektoa / Arquitecta municipal)-Asier Goikouria (Jarduneko Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune Arloko burua / Jefe del Área Obras, Servicio, Mantenimiento y Medio Rural en funciones)-Joseba Solaun Solana (Jarduneko Obra arduraduna / Encargado de Obras en funciones) <p>*Idazkaria secretaria/o - Dinamizatzailea moderador/a</p> <ul style="list-style-type: none">-Irene Barrenengoa Pagazartundua <p>*Auzokideak vecinas/os</p> <ul style="list-style-type: none">-guztira / total: 42-emakumezkoak: 25-gizonezkoak: 17 <p>*Kazetariak periodistas</p> <ul style="list-style-type: none">-Marta Peciña (El Correo)-Susana Martín (Deia)	
Gai-zerrenda Orden del día	1_ Aurkezpena presentación 2_ Gai orokorrak cuestiones generales 3_ Auzoko gaiak cuestiones del barrio 4_ Galderak Preguntas	
	Euskaraz	Gaztelaniaz
Edukia Contenido	1_ Aurkezpena Alkate-udalburuak bertaratutakoak aurkeztu ditu, hala mahaiko ordezkariak,	1_ Presentación El alcalde presenta a los asistentes, tanto los representantes en la mesa como el



	nola langile teknikariak, eta laburki azaldu du nola bideratuko den saioa.	personal técnico, y hace una breve explicación de cómo va ir dirigida la sesión.
	<p>2_ Gai orokorrak</p> <p>GIZARTE POLITIKAK -Pertsona zaharrentzako laguntzari dagokionez, itxaron zerrenda murriztu da eta 155 ke-detektore gehiago instalatu dira, batez ere, 80 urtetik gorako emakumeen etxeetan, haiek baitira egoera ahulenean daudenak. -Enplegu-programak. 28 kontratazio egin dira enplegu programen barruan, lanaldi osoan jarduteko.</p> <p>HAZ -Lehenengo aldiz zerbitzua dago egun osoan. Astelehen eta ostegunetan 08:00etatik 19:00etara etengabe. Hasteko, urtebetez izango da, herritarrek nola hartzen duten ikusteko. -Idea da HAZ leihatila bakar bihurtzea.</p> <p>ANTZOKIA -Laudion aurreikusita dauden proiektu kulturaletako bat da. Une honetan ideien lehiaketa dago martxan, martxoaren 4a arte. Gero, maiatzaren bukaeran jakingo dugu zein den Alzarrateko antzokirako azken proiektua. 336.501€</p> <p>LAMUZA PARKEA -Berretsi egin da bi eraikin birgaitu direla Aldundiaren finantzazioarekin. -Lizitazioa martxan dago eta obrak udan hasiko dira. Kultura Etxe berriaren lehenengo fasea egikarrituko da.</p> <p>KIROL INSTALAZIOAK - Granja kiroldegia. Oinezkoen irisgarritasunerako proiektua idazketa-fasean dago. Gero, diru-laguntza eskatuko zaio Aldundiari. - Gardea. Bi <u>padel pista berri</u> instalatu dira; asko erabili eta erabiltzen dira. Arrakasta handia.</p>	<p>2_ Cuestiones generales</p> <p>POLITICAS SOCIALES -En la ayuda a las personas mayores, se ha reducido la lista de espera, se han instalado 155 detectores de humo más, sobre todo a mujeres de más de 80 años que viven solas ya que son más vulnerables. -Programas de empleo. Se han hecho 28 contrataciones, a jornada completa dentro de programas de empleo.</p> <p>HAZ/SAC -Por primera vez se cuenta con el servicio durante todo el día. Lunes y jueves en horario continuado 08:00-19:00. En principio será durante un año para ver la respuesta de la ciudadanía. -La idea es convertir al SAC en una ventanilla única.</p> <p>ANTZOKIA -Es uno de los proyectos culturales previstos en Llodio. En este momento se está convocando el concurso de ideas, hasta el 4 de marzo. Luego para finales de mayo se sabrá cuál es el proyecto final para el Antzokia en Alzarrate. 336.501€</p> <p>LAMUZA PARKEA -Confirmar que se han rehabilitado dos edificios con financiación foral. -La licitación está en marcha la obra empezará en verano.. Se ejecutará la primera fase de la nueva Kultur Etxea.</p> <p>INSTALACIONES DEPORTIVAS - Polideportivo la Granja. Se está redactando el proyecto de accesibilidad peatonal. Luego, se planteará la subvención a la Diputación. - Gardea. Se instalaron dos <u>pistas nuevas de pádel</u>, han tenido y tienen mucho uso. Todo un éxito.</p>



	<p><u>Hockey pista.</u> Kantxako argiztapena aldatu da. Inbertsioa: 55.000€ BEZ barne.</p> <p>Tenis <u>kantxako estalkia.</u> Kantxa estaltzeko proiektua idazten ari dira.</p> <p>Calistenia parkea. Latorro. Berehala hasiko dira obrak.</p> <p>Aretako frontoia. Berotze-instalazioa aldatuko da.</p> <p>Ellakuri. Belar naturala artifizialarekin ordeztu da. Aldagelak egin dira.</p> <p>San Martin. Aldagelak eta instalazio guztiak eraberritzeko proiektua martxan da.</p>	<p>La <u>pista de Hockey.</u> Cambio en la iluminación del campo. Inversión: 55.000€ IVA incl.</p> <p>La cubierta de la <u>cancha de tenis.</u> Se está redactando el proyecto para poder cubrirla.</p> <p>Parque de Calistenia. Latorro. El inicio de las obras es inminente.</p> <p>Frontón de Areta. Cambio en la instalación de calefacción.</p> <p>Ellakuri. Se ha sustituido la hierba natural por hierba artificial. Se han habilitado los vestuarios.</p> <p>San Martín. Se ha iniciado el proyecto de reforma de los vestuarios, y de todas las instalaciones.</p>
	<p>3_Auzoko gaiak</p> <p>PARKEA -Estalkia ipini da (284 m²: polikarbonatu garden koloreztatua) eta udazkenean argiteria erantsi zen. - Zorua eta zabuak berritu dira.</p> <p>ARETAKO ESKOLA - 35.000 euroko inbertsioa esleitu da futbol eta saskibaloia kantzak berritzeko. -Atezainaren etxea ikastetxerako erabiltzeko eskaera egin da.</p> <p>SANTA ANA - Barbakoetan aldaketak egin dira.</p> <p>IRIN FABRIKA -Desjabetu egin da, eta, beraz, Udalarena da orain. -Aparatzeko leku gehiago egingo dira han.</p> <p>KATEA -Markesina ipini da. -Arabako Foru Aldundiak abiadura mugatzeko seinaleak ipini ditu.</p>	<p>3_Cuestiones del barrio</p> <p>PARQUE -Se ha colocado una cubierta (284 m²: policarbonato traslúcido coloreado) y en otoño se añadió la iluminación. -Se han renovado el suelo y los columpios.</p> <p>ESCUELA ARETA -Inversión adjudicada de 35.000 € para alumbrar las canchas de fútbol y baloncesto. -Hay una solicitud para uso escolar de la casa del conserje.</p> <p>SANTA ANA Se han modificado las barbacoas.</p> <p>FÁBRICA DE HARINAS -Se ha expropiado y es propiedad del ayuntamiento. -Se van a habilitar más aparcamientos en esa zona.</p> <p>LA CADENA -La marquesina está colocada. -La Diputación de Álava ha colocado señales de limitación de velocidad.</p>



	<p>-Edukiontzia mugitu dira hobeto ikus dadin.</p> <p>FRONTOIA</p> <p>-Sarbidetako bihurtzea zabaltzea da.</p> <p>-Bi farola ipini dira arrapalaren hasieran eta bukaeran. Beste bat ipiniko da erdiko aldean.</p> <p>ITURRALDE</p> <p>-Irisgarritasunaren lehenengo fasea egin zen.</p> <p>-Hormak pintatuko dira auzokoek hala eskatuta. Aldai plazako horma-irudia egiten ari den enpresak egingo du.</p>	<p>-Se han movido contenedores para mejorar la visibilidad.</p> <p>FRONTÓN</p> <p>-Se ha ampliado la curva de acceso.</p> <p>-Hay dos farolas colocadas al principio y al final de la rampa. Se colocará otra en la zona media.</p> <p>ITURRALDE</p> <p>-Se hizo la 1ª fase de accesibilidad.</p> <p>-Se pintarán los muros, bajo petición vecinal. Lo hará la empresa que está haciendo el mural de la plaza Aldai.</p>
<p>Galderak Preguntas</p>	<p>Herritarra. Galdetu egin du ea irin fabrikaren eraikina eraitsiko ote den.</p> <p>Jon Ander Altube. Ez da horri buruzko erabakirik hartu. Lehenetsuna zen higiezia erostera eta azaroan egin zen hori, desjabetze bidez. Udalak 800.000 eurotik gora ordaindu behar izan ditu.</p> <p>Herritarra. Eraikinak arriskua eragiten du eta klubean ondo ikustea eragozten du, Aretaranzko bidean.</p> <p>Jon Ander Altube. Eraikina antolamendutik kanpo legoke, beraz, erabakiak hartu beharko lirateke. Teknikariek behin baino gehiagotan ikuskatu dute segurtasunaren kontua. Asmoa litzateke Bilborantz parke lineala egitea ibaiaren bazterrean zehar.</p> <p>Herritarra. Bi kontu planteatu ditu:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Pentsatzen du ez zela Landetako zonalderako PAU berririk aurkeztuko.2. Plan Orokorra idazteko plegua prestatzeko dago oraindik, lehiaketara atera ahal izateko. Jakin nahi du zertan den. <p>Jon Ander Altube. Landeta aldeko PAUari dagokionez ez dago albisterik. Sustatzaile batek interesa agertu zuen, baina ez zuen aurrera egin ez zelako egokitzen jo.</p>	<p>Vecina. Pregunta si está previsto derribar el edificio de Harinas.</p> <p>Jon Ander Altube. No hay ninguna decisión al respecto. La prioridad era adquirir la propiedad y se materializó en noviembre, mediante expropiación. Para el ayuntamiento ha supuesto algo más de 800.000 €.</p> <p>Vecina. El edificio supone peligro y quita visibilidad en la curva, dirección Areta.</p> <p>Jon Ander Altube. El edificio estaría fuera de ordenación, por lo que habría que tomar decisiones. Los técnicos y técnicas han revisado más de una vez el aspecto de la seguridad. La idea sería hacer un parque lineal hacia Bilbao en esa zona de la ribera del río.</p> <p>Vecina. Plantea dos cuestiones:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Supone que no se ha presentado nuevo PAU para la zona de Landeta.2. Estaba pendiente preparar el pliego de redacción del Plan General para sacarlo a concurso. Quiere saber en qué punto se encuentra. <p>Jon Ander Altube. Respecto al PAU de la zona de Landeta no hay ninguna novedad. Hubo un interés de un promotor pero no prosperó porque se entendía que no era lo</p>



Plan orokorrari dagokionez, gustatuko litzaike hiru urte lehenago abiarazi izana. Hirigintza Arloan aldaketa batzuk egon dira: arkitektoa eta AOT (arloko burua) jubilatu egin dira. Ez da erraza izan pertsona horiek ordeztea gutxieneko egonkortasun batekin. Orain arloa ondo antolatua dago eta, ezer ez bada zailtzen, Hirigintza Arloak hartu beharreko hurrengo erabakia izango litzateke. Hori guztia hurrengo legegintzaldian izango da. Bitartean, azken urte hauetan plan orokorraren aldaketa puntualak bultzatu dira. Lehenengoak, dagoeneko onetsia, landa-lurretan eraikitzeko baldintzak finkatzen ditu. Bestea, gaur egun izapidetzen ari dena, suhiltzaileen egoitza handitzeko aukera emango du.

Herritarra. Galdetu du zer gertatzen den HUA (araztegia).

Jon Ander Altube. 1999-2003 legegintzaldia erabakigarria izan zen. Erabaki zen ez zela Anuntzibain kokatuko. Argitu zenez, Nerbiogoieneko eskualde osoan bi araztegi ditugu: Markijana eta Basaurbe. Ia 20 urte igaro dira. Azken urtean, Kantauriko Urkidetzaren, Ministerioaren, zehazki, Sustapen Ministerioaren eta Ingurumen Ministerioaren aldetik nahiko aurrerakuntza handiak egin dira ingurumen-inpaktuaren deklarazioan. Espainiako Gobernuak hartutako erabakia da, araztegiak finantzatu behar dituelako, kasuan kasuko partzuergoak kudeatuko dituen arren. Espainiako Gobernuak Estatuko Aurrekontu orokorren onespenerekin lotzen du izapidetze hori.
***(OHARRA:** Estatuko Aurrekontu Orokorrak ezetsi egin dira Kongresuan eta hauteskunde orokorrak deitu dituzte apirilaren 28rako).

Natxo Urkixo. Adierazi duenez, 2018aren bukaeran esleitua egon behar zuen, gero

adecuado.

Respecto al Plan General, les hubiera gustado lanzar la revisión de dicho plan hace tres años. Ha habido varios cambios en el Área de Urbanismo: jubilación del arquitecto y del TAG (Responsable del Área). No ha sido fácil sustituir a esas personas con cierta estabilidad. Ahora esa Área está bien organizada y, si no se complica nada, sería la siguiente decisión que tendría que tomar el Área de Urbanismo. Todo está en la próxima legislatura. Mientras tanto, estos años se han promovido modificaciones puntuales del Plan General. Una, que está definitivamente aprobada, que señala las condiciones para edificar en suelo rural. Otra, que están tramitando actualmente, que va a permitir que se amplíe el cuartel de bomberos.

Vecina. Pregunta qué pasa con la EDAR (planta depuradora).

Jon Ander Altube. La legislatura 1999-2003 fue determinante. Se decidió que se descartaba la ubicación de Anuntzibai. Se aclaró que en todo el Alto Nervión teníamos dos depuradoras: Markijana y Basaurbe. Han pasado prácticamente 20 años. En el último año, por parte de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico, el Ministerio, y concretamente, Fomento, y el Ministerio de Medio Ambiente, se ha avanzado bastante en la declaración de impacto medioambiental. Es una decisión que toma el Gobierno de España y debe financiar las depuradoras, aunque las tenga que gestionar el consorcio correspondiente. El Gobierno de España vincula la tramitación a la aprobación de los Presupuestos Generales del Estado.
***(NOTA:** los Presupuestos Generales del Estado han sido rechazados en el Congreso y han convocado elecciones generales para el 28 de abril).

Natxo Urkixo. Señala que les habían dicho que iba a estar adjudicada a finales de



esan zuten 2019an izango zela eta 2020an jarriko zela martxan. Eta orain esaten dute 2022-2023an ipiniko dela martxan.

Herritarra. Erantsi du zenbat eta beranduago eraiki, orduan eta harroago egongo garela teknologiarik modernoena izateaz.

Natxo Urkixo. Arrazoia eman dio. 2003an araztegia planifikatu zenetik, asko aldatu da ura arazteko modua. Erantsi du Europak isun galanta ordainaraziko diola Estatuari, eta Estatuak isunaren zati bat Laudio Udalarari ordainaraziko diola. Alkatearen ustez, erantzule nagusiak ordaindu beharko luke, hau da, Estatuak. Udan Andaluzian gertatu da eta Gobernu Zentralak eragindako udalen artean banatu zuen isuna.

Jon Ander Altube. Ez da jasagarria Nerbioigoiena osoak hondakin urak arazteko sistema bakar bat ere ez izatea, eta kaka ibaira botatzen ibiltzea. Are gutxiago daukagun biztanleria eta jarduera industrialak kontuan izanda. Ez badago blokeorik, aurreikuspenen arabera Basaurbeko araztegiak 2022an egon beharko luke bukatuta eta martxan.

Natxo Urkixo. Esan dieten azken gauza da 2019an esleituko dela.

Herritarra. Galdetu du Udalak lurak erosi ote dituen.

Natxo Urkixo. Eusko Jaurlaritzak erosi behar ditu lurak. Udalak lurren balorazioa egin zuen prezio justua egiteko. 80.000 eurotan zenbatetsi ziren eta jabeak 800.000 € inguru eskatzen zituen.

Herritarra. Esan du duela urte batzuk Udalaren erabakiak ZUINen argitaratzen

2018, luego, que durante el año 2019 y que se iba a poner en marcha en el 2020. Ahora dicen que se pondrá en marcha en el 2022-2023.

Vecina. Añade que cuanto más tarde se construya, más podremos presumir de ser de última generación.

Natxo Urkixo. Le da la razón. Desde que se planificó la planta purificadora del 2003 ha variado mucho la forma de depuración de las aguas. Añade que Europa le va a poner una buena multa al Estado y seguramente, éste hará pagar una parte al Ayuntamiento de Laudio. Piensa que debería abonarla el máximo responsable, el Estado. Este verano ha ocurrido en Andalucía y el Gobierno Central repartió la multa entre los municipios afectados.

Jon Ander Altube. No es sostenible que todo el Alto Nervión no tenga ningún sistema de depuración de aguas residuales y que estemos echando la mierda al río. Además, teniendo en cuenta el nivel de población y actividad industrial que tenemos.

Si no hay bloqueo, la previsión era que para finales de 2022 estuviera terminada y en marcha la depuradora de Basaurbe.

Natxo Urkixo. Lo último que les han dicho es que para finales de 2019 estará adjudicada.

Vecina. Pregunta si el ayuntamiento ha adquirido los terrenos.

Natxo Urkixo. Los terrenos los tiene que adquirir el Gobierno Vasco. El ayuntamiento hizo una valoración de los terrenos para proporcionarle un justiprecio. Se valoraban en 80.000 € y el propietario pedía alrededor de 800.000 €.

Vecina. Dice que hace años se publicaban en el ZUIN los acuerdos que se tomaban en



zirela eta faltan botatzen duela. Erantsi du oharkabean joaten direla herritarrei eragiten dieten kontuak.

Jon Ander Altube. Erantzun du 2011-2012 ekitaldian hasi zirela ZUINen osoko bilkurako erabakiak argitaratzen. Argitaratuko zena hautatzen zuten. Orain webgunearen bidez dago eskuragarri osoko bilkura, kontratugilearen profila ere atzitu daiteke, eta ikusi daiteke zer obra ari diren esleitzen, nori, zenbatean, eta zer eskaintza dagoen. Egia da teknologia berriekin ez garela biztanle guztiengana iristen. Agian, osoko bilkurako erabakiak paperean argitaratzen saia gintezke, nahiz eta espazio-arazoak egongo diren, eta aukeratu beharko litzatekeen zer argitaratu eta zer ez.

Herritarra. Fabian Legorburu ikastetxeko kirol pistak eskola-orduez kanpo irekita uzteko eskatu du, eta iradoki du udaltzainek itxi dezaketela. Gurasoen elkartearekin eta zuzendaritzarekin hitz egin dute eta ez dute eragozpenik jarri. Esan du ez dagoela jolasteko beste lekurik, Kultura Etxea itxita dagoelako, parke txikiarentzat delako eta berdegunea lokaltia delako.

Jon Ander Altube. Erantzun du Saretako bi gazte haiekin bildu zirela eta gaia planteatu zirela. Esan duenez, pentsatu behar dute zer erabilera eman garai bateko atezainak etxebizitza gisa erabiltzen zuen eraikinari. Erantsi du udaltzainek ez dutela emango garai batean atezainak ematen zuen zerbitzua, han bizi zelako.

Herritarra. Esan du eskatzen duela instalazioak irekita egotea ordu jakin bat arte, eta udaltzainek ireki eta ixtea instalazioak. Halaber, Kultura Etxearen kudeaketaz galdetu du.

Jon Ander Altube. Erantzun du

el ayuntamiento y que lo echa en falta. Añade que pasan desapercibidas decisiones que afectan a la población.

Jon Ander Altube. Responde que en el año 2011-2012 comenzaron a publicar los acuerdos del Pleno en el ZUIN. Hacían una selección de lo que se publicaba. Ahora se puede acceder a la sesión plenaria a través de la página web, se puede acceder al perfil del contratante y se puede ver qué obras se están adjudicando, a quién, por qué importe y las ofertas que hay. Es cierto que con las nuevas tecnologías no se llega a toda la población. Se podría intentar publicar en papel el título de los acuerdos plenarios, aunque hay problemas de espacio y habría que elegir qué se publica y qué no.

Vecina. Solicita que se mantengan abiertas las pistas deportivas del centro educativo Fabián Legorburu fuera del horario escolar y sugiere que la Policía Municipal se encargue de cerrar el recinto. Han hablado con el AMPA y la dirección del centro y no les han puesto ningún problema. Dice que no hay otros sitios donde jugar porque la Casa de Cultura está cerrada, el parque es para niñas y niños más pequeños y la zona verde es un barrizal.

Jon Ander Altube. Responde que dos jóvenes de Areta se reunieron con ellos y les plantearon ese tema. Dice que tienen que pensar qué uso dar al edificio que usaba como vivienda el anterior conserje. Añade que la Policía Municipal no va a dar el servicio que prestaba el anterior conserje, puesto que vivía allí.

Vecina. Dice que solicita que dichas instalaciones sean accesibles hasta cierta hora y que la Policía Municipal se encargue de abrir y cerrar las instalaciones. También pregunta por la gestión de la Casa de Cultura.

Jon Ander Altube. Responde que tienen



ikastetxearekin hitz egin beharko dutela, beste batzuetan kirol pistak erabili eta gero zikinkeriaz beteta geratu direlako: zarama, beira apurtua, txakur kakak... Ikastetxearekin hitz egin nahi dute ekarpenen bat egin dezaketelako. Kontua ez da soilik atea ireki eta ixtea. Zerbait gehiago da.

Kultura Etxeari dagokionez, Aretako auzokideen batzarra egin zen, eta, besteak beste, Laudio Udalarekin biltzeko eskatzea adostu zen. Oraindik ez dute eskatu. Behin eginda, gaia kudeatzeko modua aztertuko dute.

Herritarra. Eskatu du saskibaloian ibiltzeko bi saski instalatzeko.

Amets Meatza. Erantzun du eskera jaso dela.

Herritarra. Auzokide batzuek planteatutako gaiak ekarri ditu.

-Hobetu beharreko barandak: Bidegurutzekoa (Otarde eremua), elizara doana eta Kultura Etxearen aurrekoa.

-Parkeko eremuan, ibai bazterreko pasealekuan, zuhaitzen sustraiak zoladura altxatzen ari dira.

-Farmaziatik azken tabernara doan zonaldeko baldosak aldatzea eskatu du, labainkorak direlako.

-Kioskoaren ondoko zebrabidea gehiago argitzea eskatu du. Euria egiten duen egunetan ez da ondo ikusten.

-Bidezarretan txakurren kakak jasotzeko poltsak ipintzeko eskatu du.

-Eskatu egin du plazatxoan argindar-koadro bat instalatzeko, han egiten diren ekitaldien antolakuntza errazteko.

-Esan duenez, behin baino gehiagotan eskatu dute gazteentzako lokal bat eta iradoki du garai bateko jubilatuen etxea egoki izan litekeela.

que hablar con el centro porque el uso de las canchas deportivas, en otras ocasiones, ha generado suciedad (basura, vidrios rotos, heces de perro...). Quieren hablar con el centro porque puede aportar algo. No solamente se trata de abrir y cerrar las instalaciones. Es algo más.

Sobre la Casa de Cultura, hubo una asamblea de las vecinas y vecinos de Areta y, entre otras cosas, se acordó solicitar una reunión con el Ayuntamiento de Laudio. Todavía no la han solicitado. Una vez llevada a cabo, analizarán como gestionar el tema.

Vecino. Pide que se coloquen dos canastas de baloncesto en la zona deportiva de la escuela.

Amets Meatza. Responde que toma nota.

Vecino. Traslada varios temas planteados por algunas vecinas y vecinos.

-Barandillas que necesitan mejoras: la del crucero (zona Otarte), la que lleva hacia la iglesia y la que está frente a la Casa de Cultura.

-En la zona del parque, en el paseo junto al río, se está levantado el suelo debido a las raíces de los árboles.

-Solicita cambiar las baldosas de la zona que va desde la farmacia hasta el último bar porque resbalan.

-Solicita iluminación en el paso de cebrá que está junto al quiosco. En los días de lluvia no se ve bien.

-Solicita colocar en los Caminos Viejos papeleras con bolsas para recoger las cacas de los perros.

-Solicita que se coloque un cuadro de luz en la plazoleta que está junto a la iglesia para facilitar la organización de los actos que llevan a cabo.

-Dice que habitualmente han solicitado un local para los jóvenes y sugiere que puede ser adecuado en antiguo centro de jubilados.



Joseba Solaun. Elizaren aurrean aldatu beharreko baranda udal soldatzaileak egin du partzialki. Ideia da zatika egiten joatea, metro batzuk direlako.

Bidezarretan beti daude arazoak paperontziekin, ibaira botatzen dituztelako. Bi paperontzi normal daude eta txakurren kakak han uzteko erabil daitezke.

Asier Goikouria. Udalak 400.000 poltsa erosten ditu txakurren kakak jasotzeko.

Jon Ander Altube. Argindar-koadroa ipintzearena aztertu egin daiteke. Zebrabideei dagokionez, herritar batek esan die semaforoaren ondokoa ere ez dela ondo ikusten. Marra lodiagoak margotzea iradoki du.

Natxo Urkixo. Erantsi du euria ari duenean ikusgaitasuna asko murrizten dela, arriskutsua dela eta konpondu egin behar dela.

Jon Ander Altube. Gazteentzako lokalari, hau da, horretarako garai bateko jubilatuen lokala erabiltzeko iradokizunari dagokionez, esan du ez dituela irisgarritasun baldintzak betetzen. Lauzen kontua eta zuhaitzen sustraiena jasoak geratu dira.

Herritarra. Areta kalean autobusari itxaroteko markesina eskatu du, Laudiorako noranzkoan, Ibarlauren alboan.

Joseba Solaun. Beste batzar batzuetan planteatu zen, eta teknikariak alboratu egin zuen, ez zelako ondo ikusten eta ez zuelako araudia betetzen.

Asier Goikouria. Patricia Bilbao eraikinaren beheko aldean kokatzeko ideia aztertu zen. Errepidearen parean zaila da.

Joseba Solaun. La barandilla que hay que sustituir frente a la iglesia está parcialmente fabricada por el soldador municipal. La idea es que vaya fabricándola poco a poco, por tramos, ya que son varios metros.

En Bidezarreta siempre hay problemas con las papeleras porque las tiran al río. Hay dos papeleras normales que se pueden utilizar para depositar los excrementos de los perros.

Asier Goikouria. Anualmente, el ayuntamiento compra 400.000 bolsas para depositar las cacas de los perros.

Jon Ander Altube. Se puede estudiar la colocación del cuadro eléctrico. Respecto a los pasos de cebra, un vecino les ha comentado que tampoco se ve bien el que está junto al semáforo. Sugiere pintarlos con rayas más gruesas.

Natxo Urkixo. Añade que cuando llueve la visibilidad se reduce mucho, que resulta peligroso y que hay que solucionarlo.

Jon Ander Altube. Respecto al local para jóvenes sugerido, el antiguo centro de jubilados, dice que no reúne ninguna condición de accesibilidad. Toma nota de las baldosas y de las raíces de los árboles.

Vecina. Solicita una marquesina para esperar al autobús en la calle Areta, dirección Laudio, junto a Ibarlau.

Joseba Solaun. En otras asambleas se ha planteado y la técnica lo desestimó porque no había visibilidad y no cumplía la normativa.

Asier Goikouria. Se barajó la idea de ubicarla en los bajos del edificio Patricia Bilbao. A pie de carretera está complicado.



Amets Meatza. Elizaren ondoan bada babestutako geltokia bat, Ibarlauren ondokoa eta etxe larrosaren ondokoa ere.

Herritarra. Elizaren ondoko geltokia ez dago estalita.

Amets Meatza. Iradoki du Bizkaibusekin hitz egin daitekeela, geltokia mugitzeko.

Joseba Solaun. Nahiz eta lekua egokia ez izan, eserleku bat jarri zen autobusaren zain zegoen jendea esertzeko.

Jon Ander Altube. Geltokia metro batzuk mugitzeko aukera aztertu daiteke.

Herritarra. Eskertu egin du aurreko batzarrean egindako lau edo bost eskaerak bete izana. Eskatu egin du Atxetako goiko aldean dauden zuloak betetzeko. Eraikin atxikien ondoan dauden zuhaitzak inausteko eskatu du. Hostoak eta loreak dituztenean ez dute ikusten uzten. Orain adarrak oso behean daude eta oinezkoentzat arriskutsuak dira.

Semaforoaren ondoko zementuzko zonaldean arrakala bat dago eta aurrekoan gurpildun aulki bat geratu zen han, ez atzera, ez aurrera.

Etxe atxikien aldean arazoak dituzte sagu eta arratoiekin. Ezin dute balkoia ireki.

Iradoki egin du udan lapurretak ekiditeko segurtasun-ekimena errepikatzeke. Ekimenari esker, telefono zenbakia ematen zaie udaltzainei oporretan joan diren jabeei abisatu diezaieten alarmak jotzen badu.

Jon Ander Altube. Ekimena errepikatzeke esango dutela adierazi du. Gainerakoak jasota geratu dira. Gogora ekarri du Udalarri abisuak emateko zenbait bide daudela: Telefonoz deitu daiteke edo webguneko HOBETU HERRIA atalaren bidez egin daiteke, non idazteko eta argazkiak eransteke aukera dagoen. Galdetu du

Amets Meatza. Junto a la iglesia hay una parada que está protegida, esa parada junto a Ibarlau y otra junto a la casa rosa.

Vecina. La parada que está junto a la iglesia no está cubierta.

Amets Meatza. Sugiere que se puede hablar con Bizkaibus y trasladar la parada.

Joseba Solaun. Aunque no es un lugar adecuado, se colocó un banco para que la gente se pudiera sentar mientras esperaba al autobús.

Jon Ander Altube. Se puede mirar trasladar unos metros la parada.

Vecina. Agradece que hayan cumplido las cuatro o cinco peticiones que realizaron en la asamblea anterior. Solicita que tapen los agujeros que hay en la parte superior de Atxeta. Solicita que poden los árboles que están junto a los adosados. Cuando están con hojas y en flor quitan visibilidad. Ahora las ramas están muy bajas y son peligrosas para los viandantes.

Junto al semáforo hay una zona de cemento que tiene una grieta y el otro día se quedó enganchada una silla de ruedas.

En la zona de los adosados tienen problemas con ratas y ratones. No pueden abrir el balcón.

Sugiere que se repita la iniciativa de seguridad para prevención de robos en época estival. Consiste en facilitar el número de teléfono a los municipales para que puedan avisar a los propietarios que están de vacaciones, en caso de que suene la alarma.

Jon Ander Altube. Responde que lo comentarán para que se recupere la iniciativa. Toma nota de las demás cuestiones. Recuerda que hay varias vías para dar avisos al ayuntamiento: se puede llamar por teléfono, a través de la página web, en el apartado (HOBETU ZURE



arratoien berri eman ote duten.

Herritarra. Erantzun du joan egin direla eta esan dietela arratoi asko egon direla aurten. Gehitu du ibaiko sastrakak ezin direla kendu.

Jon Ander Altube. Erantzun du URA Agentziaren erantzukizuna dela eta euren irizpideak dituztela.

Herritarra. Kezkatua dago ezin duelako balkoia ireki arratoiak etxean sartzearen beldur delako eta tranpak ipini dituztela. Udalekoak joan dira eta pozoia bota dute.

Natxo Urkixo. Apaloetan arazo larria egon da arratoiekin eta konpondu egin da. Esan du kasua aztertu beharko dutela. Agian arratoiek janaria lortuko dute han.

Asier Goikouria. Astearteetan arratoiak hiltzeko enpresa bat joaten da, baina oso mugatuta daude, pozoia beti geratu behar delako ezkutatuta zuloetan edo arratoi habietan. Alegia, txakurrak, ume txikiak edo gainerako pertsonak sartu ezin daitezkeen lekuetan. Ahal dutena egiten dute.

Herritarra. HAPO ez denez aldatu, galdetu egin du zer egin daitekeen ordenamenduz kanpo dauden etxeekin.

Jon Ander Altube. Erantzun du eraikin bat ordenamenduz kanpo dagoenean izaten dela plan orokorrak horrela xedatu duelako. Plan berria egitean egoera berraztertu liteke. Plan orokorra berridazteko saiakera egin zen.

Natxo Urkixo. 2011n, alkatetza hartu baino hilabete lehenago, plana idazten ari zen enpresak ohar bat bidali zion aurreko alkateari esanez ez zuela ezer jakin nahi eta joan egingo zirela. Horrek eragin du dena

HERRIA) se puede escribir unas líneas y adjuntar una foto. Pregunta si han avisado sobre las ratas.

Vecina. Responde que han acudido y que les han dicho que este año ha habido muchas ratas. Añade que no se puede quitar maleza del río.

Jon Ander Altube. Responde que es responsabilidad de URA (Agencia Vasca del Agua) y que tiene sus criterios.

Vecina. Está preocupada porque no puede abrir el balcón por miedo a que entren las ratas en casa y que han colocado cepos. Los del ayuntamiento han acudido y han echado veneno.

Natxo Urkixo. En Apaloeta ha habido un grave problema con las ratas y se ha solucionado. Dice que tendrían que mirar su caso. Quizás sea un lugar donde las ratas encuentran comida.

Asier Goikouria. Los martes acude una empresa de desratización pero están muy limitados porque el veneno tiene que quedar siempre oculto en agujeros o nidos de ratas. Es decir, en sitios donde no puedan acceder los perros, los niños pequeños o cualquier persona. Hacen lo que pueden.

Vecino. Como no ha variado el PGOU pregunta qué se puede hacer con las casas que están fuera de ordenación.

Jon Ander Altube. Responde que cuando un edificio está fuera de ordenación es porque así lo dicta un plan general. Uno nuevo valdría para revisar esa situación. Hubo un intento de redacción del Plan General.

Natxo Urkixo. En el año 2011, un mes antes de entrar en la alcaldía, la empresa que estaba redactando el plan mandó una nota al anterior alcalde diciendo que no



horrela geratzea. Gainera, Hirigintza Arloan gertatutakoa aipatu du Jonanek. Plan Orokorren aldaketa puntualak egin daitezke. Ulertzen du ordenamenduz kanpoko etxe batean bizitzea karga bat dela.

Almudena Fernández. Hala ere, badago mantentze- eta kontserbazio-lanak baimentzea.

Herritarra. Esan du Aretako 13.ean bizi dela, errepide ondoan. 100 urteko etxea da eta narriatu egiten da. Gainera, EIT dator, eta txostenean adierazten den guztia egin behar da.

Almudena Fernández. Egoera izoztua dago.

Herritarra. Urte asko daramatzagu horrela.

Jon Ander Altube. Egoerak babesgabezia sortzen du, linbo batean geratzen zarelako. Gaia desblokeatu dezakeen gauza bakarra da plan orokorra berraztertzea. Duela urte asko behar dugu plan orokor berria. Laudio Udalak plan bat dauka indarrean, garatzen jarraitzen du eta gauza asko egiteko aukera ematen du. Zaharkitua geratu da, 1994az geroztik dagoelako indarrean.

Herritarra. Aretako 11 eta 13.ean ez dago espaloirik. Ekorgailua etxearen kontra igarotzen da eta zuloa eragiten ari da.

Amets Meatza. Ikustera joan beharko dira eta kontua litzateke tope bat jartzea.

Jon Ander Altube. Bihar ikusiko dute.

Herritarra. Galdetu du ea Aldundiari eskatu zaion OHZ berrikusteko.

Jon Ander Altube. Udalari ez dagokio katastroko balioak finkatzea.

querían saber nada y que se marchaban. Eso ha provocado que todo se quede así. Además, Jonan ha comentado la situación que ha habido en el Área de Urbanismo. Las modificaciones puntuales del Plan General se pueden hacer. Entiende que vivir en una casa fuera de ordenación es una carga.

Almudena Fernández. Las obras de mantenimiento y conservación siempre serían autorizables.

Vecino. Dice que vive en Areta, 13, junto a la carretera. Es una casa de 100 años y se deteriora. Además, luego viene la ITE y hay que hacer todo lo que marca el informe.

Almudena Fernández. Es una situación que está congelada.

Vecino. Es una situación en la que llevamos muchos años.

Jon Ander Altube. Es una situación que genera indefensión porque estás en un limbo. Lo único que podría desbloquear este tema sería la revisión del Plan General. Hace años que necesitamos un nuevo Plan General. El Ayuntamiento de Laudio tiene un plan en vigor que se sigue desarrollando y que nos permite hacer un montón de cuestiones. Se ha quedado viejo, ya que está desde 1994.

Vecino. En la zona de Areta, 11 y 13 no hay acera. Contra la casa pasa la barredora y está produciendo un agujero.

Amets Meatza. Hay que ir a verlo y sería cuestión de poner un tope.

Jon Ander Altube. Mañana lo mirarán.

Vecino. Pregunta si se ha pedido a la Diputación que revise el IBI.

Jon Ander Altube. No corresponde al



Herritarra. OHZ igo zen eta eskatu du berrikusteko.

Natxo Urkixo. Udalak egin zuena izan zen hobariak hobetzea OHZren igoeraren inpaktua arintzeko. Berrikuspen berria Aldundiari dagokio.

Herritarra. Galdetu du ea Udalak berrikuspena eskatu dion Aldundiari.

Amets Meatza. Erantzun du baietz, eskatu egin zaiola. Aldundiak ia 17 urte zeramatzan inongo baloraziorik egin gabe. Hala ere, 8 urtean behin egin behar da, betebeharra da.

Natxo Urkixo. Esan du, printzipioz, ez dagoela euren esku, baina gainean egoten saiatuko direla. IBlaren igoera hain handia izan zen 20 urtetik gora igaro zirelako prezioak egokitu gabe.

Jon Ander Altube. Gainera, katastroaren balioak baxuak ziren merkatuko prezioak izugarri handiak zirenean. Gero etxebizitzaren prezioa jaitsi zen eta OHZren prezioa inoiz baino altuagoa. Alegia, OHZk katastroko balioari egiten dio erreferentzia. Ez dio erreferentziarik egiten merkatuaren balioari.

Herritarra. Esan du Udalak ordaindu beharreko ehunekoa jaitsi zuela.

Amets Meatza. Erantzun du Laudio Udalak Foru Arauan onartzen den baliorik baxuena ipini zuela. Ordenantza orokorretan esparru orokorra Aldundiak ipintzen du, eta udal bakoitzak dauka hobariak ipintzeko eskumena. Gainbalioen kasuan, Udalak egokitzapena egin zuen inpaktua txikiagoa izateko. Oinarria katastro-balioa da oraindik, alegia, OHZrena.

Herritarra. Galdetu du gainbalioak ordaintzen ote diren.

ayuntamiento fijar los valores catastrales.

Vecino. Subió el IBI y solicita que se haga una revisión.

Natxo Urkixo. Lo que hizo el ayuntamiento fue mejorar las bonificaciones para mitigar el impacto que tuvo la subida del IBI. La nueva revisión compete a Diputación.

Vecino. Pregunta si el ayuntamiento ha solicitado la revisión a la Diputación.

Amets Meatza. Responde que sí se ha pedido. La Diputación llevaba prácticamente 17 años sin hacer ningún tipo de valoración. Por obligación, la tiene que hacer cada 8 años.

Natxo Urkixo. Dice que, en principio, está fuera de sus manos, aunque intentarán estar encima. La subida del IBI fue tan grande porque había pasado casi 20 años sin adecuar los precios.

Jon Ander Altube. Además, ocurrió que los valores catastrales eran bajos cuando los precios de mercado eran elevadísimos. Luego bajó el precio de la vivienda y el precio del IBI era más alto que nunca. Es decir, el IBI hace referencia a un valor catastral. No hace referencia al valor de mercado.

Vecino. Dice que el ayuntamiento bajó el porcentaje a pagar.

Amets Meatza. Responde que en el Ayuntamiento de Laudio pusieron el mínimo que permite la Norma Foral. En las ordenanzas fiscales el marco general lo pone la Diputación y cada ayuntamiento tiene competencias de poner bonificaciones. En el caso de las plusvalías el ayuntamiento adecuó eso para que el impacto fuese menor. La base sigue siendo el valor catastral, que es la del IBI.

Vecino. Pregunta si se pagan las plusvalías.



Amets Meatza. Erantzun du baietz.

Herritarra. OHZren azken ordainagiritan balioak zenbateko bat duela. Lurzoruaren eta eraikinaren balioa adierazi aurretik. Galdetu egin du ea ba ote dakiten zergatik aldatu den.

Amets Meatza. Erantzun du banku-erakunde batzuek ordainagiriaren karaktere kopurua mugatu dutela eta uste du hori dela azalpena.

Jon Ander Altube. Lehenago askoz informazio gehiago zetorren ordainagiritan. Banku-politika da kontua.

Herritarra. Egunen batean informazio gehiago behar badu, galdetu du ea Udalean lagunduko ote dioten.

Amets Meatza. Erantzun du baietz. Partzela bakoitzaren fitxan informazio guztia dago. Kutxabankek jaulkitzen ditu ordainagiriak berdin dio non dugun helbideratua ordainketa.

Herritarra. EIT igaro eta gero, lanak egin behar badira, galdetu du ea obren lizentzia ordaintzen den.

Amets Meatza. Erantzun du baietz.

Herritarra. Entzun du udal batzuek ez dutela kobratzen.

Amets Meatza. Laudioko ordenantza fiskaletan ez dago halako salbuespenik.

Jon Ander Altube. Baloratu ahalko litzateke. Orain arte ez da planteatu. Eraikinen ikuskapen teknikoak lan-karga izugarria dira.

Natxo Urkixo. Arabako udal txikiek arazo larriak dituzte EITak izapide ahal izateko, ez daukatelako nahikoa langilerik; hortaz, Aldundiari eskatu diote langile gehiago

Amets Meatza. Responde que sí.

Vecino. En los últimos recibos del IBI el valor viene en una cantidad. Antes señalaba valor de suelo y valor de edificación. Pregunta si saben por qué se ha cambiado.

Amets Meatza. Responde que algunas entidades bancarias han limitado el número de caracteres en el recibo y que cree que esa es la explicación.

Jon Ander Altube. Antes había mucha más información en los recibos. Es un tema de política bancaria.

Vecino. Si algún día le hace falta más información, pregunta si le ayudarán en el ayuntamiento.

Amets Meatza. Responde que sí. En la ficha de cada parcela está toda la información. Los recibos los emite Kutxabank, independientemente de dónde tengamos domiciliado el pago.

Vecino. Después de pasar una ITE, si hay que hacer obras, pregunta si se cobra la licencia de obras.

Amets Meatza. Responde que sí.

Vecino. Ha oído que en algunos ayuntamientos no cobran.

Amets Meatza. En las ordenanzas fiscales de Laudio no hay esa excepción.

Jon Ander Altube. Se podría valorar. Hasta ahora nunca se había planteado. Las inspecciones técnicas de edificios suponen una carga de trabajo impresionante.

Natxo Urkixo. Los ayuntamiento pequeños de Araba tienen muchos problemas para poder tramitar las ITEs porque carecen de



	<p>hornitzeko ataza burutu ahal izateko.</p> <p>Herritarra. Esan du arkitekto tekniko batek esan diola herri batzuek ez dutela EITaren ondorioz egin beharreko obretarako lizentzia.</p> <p>Natxo Urkixo. Azaldu duenez, Gasteiz, Amurrio eta Laudioko udaletan badaude EITak izapidetzeaz arduratzen diren aparejadoreak. Ez du ezagutzen Bizkaiko egoera, eta izan daiteke Bizkaiko herrietan ez kobratzea.</p> <p>Herritarra. Parkeko belardiaz galdetu du ea ezin den bestelako lurzoruren bat ipini, umeez jolastu ahal izateko.</p> <p>Ametz Meatza. Galdetu du ea kautxuaz ari den.</p> <p>Natxo Urkixo. Gehitu du pertsona batzuek belarra nahiago dutela eta ez diela axola lokatzez betetzea. Besta batzuek betoi armatua dute nahiago. Halaber, gaiari buelta eman dakioke.</p> <p>Herritarra. Esan du lokaztuta badago ez dela erabiltzen. Esan du probalekua eta bolalekua ere ez direla erabiltzen.</p> <p>Herritarra. Erantsi du lokaztuta egoteaz gain txakur kakaz betea dagoela.</p> <p>Herritarra. Iradoki du lurra ondo ipinia eta hesitua balego, txakurrak ez lirakeela sartuko.</p> <p>Herritarra. Esan du duela bi urte, Laudioko udaletxearen aurreko magnoliak inausten ari zirela, eskaera bat egin zuela euskaraz, Atxetako magnoliak inaustera joan zitezten. Eskaera egin eta hurrengo egunean "eskerrik asko" erantzun zioten. Duela 18 urte landatu ziren eta ez da inor joan ukitzera. Elizaren alboko etxe berriaren ondoan daudenak zoro moduan ari dira</p>	<p>personal y están solicitando a Diputación que les proporcione personal para llevarlo a cabo.</p> <p>Vecino. Dice que un aparejador le ha comentado que en algunos pueblos no cobran la licencia de obras a realizar a consecuencia de la ITE.</p> <p>Natxo Urkixo. Explica que los ayuntamientos de Gasteiz, Amurrio y Laudio tienen aparejadores que se dedican a tramitar las ITEs. No conoce la situación de Bizkaia y puede ser que no se cobre en algún pueblo de Bizkaia.</p> <p>Vecino. Sobre el campo de hierba del parque, pregunta si no se podría poner otro tipo de suelo para que las niñas y niños puedan jugar.</p> <p>Ametz Meatza. Comenta si se refiere a caucho.</p> <p>Natxo Urkixo. Añade que algunas personas prefieren la hierba y no les importa llenarse de barro. Otras, quieren que sea de hormigón armado. De todas formas, se le puede dar una vuelta al tema.</p> <p>Vecino. Dice que si está embarrado no se usa. Añade que el carro y el bolatoki tampoco se usan.</p> <p>Vecina. Añade que además de estar embarrado está lleno de caca de perros.</p> <p>Vecino. Sugiere que si estuviera con un suelo bien puesto y vallado, los perros no se meterían.</p> <p>Vecina. Dice que hace 2 años, el día que estaban podando los magnolios que están frente al ayuntamiento de Laudio, hizo una solicitud en euskera, a través de la página web, para que fueran a podar los magnolios de Atxeta. Al día siguiente de realizar la solicitud recibió un "eskerrik asko" como respuesta. Hace 18 años que</p>
--	--	---



	<p>hazten. lazko otsailean udal langileak joan ziren, eskaera paperean aurkeztu zuen eta gaztelaniaz. Ez zuen erantzunik jaso. Le solicita a Natxo que se haga cargo del asunto (en euskera).</p> <p>Natxo Urkixo. Se alegra de que el problema no haya sido el idioma.</p> <p>Herritarra. Eskatu egin du kontuan hartzeko etxe atxikien aurreko aldean dauden magnoliak, sarbidea eragozten dutelako adarrek buruan jotzen dutelako. Gainera, elizaren alboan daudenak modu arraroan ari dira hazten. Erako parkean hiru eserleku daude urkien azpian. Erdiko bankuan esertzen bazara, adarrak ukitzen dituzu. Gallarreko daude.</p> <p>Natxok bertaratzea eskertu du eta bukatutzat jo du batzarra 20:25ean.</p>	<p>se plantaron y nadie ha ido a tocarlos. Los que están al lado de la casa nueva que está junto a la iglesia están creciendo a lo loco. El año pasado, en febrero, acudió al ayuntamiento, realizó la solicitud en papel y en castellano. No recibió respuesta. Natxori eskatzen dio kontuan hartzeko (euskaraz).</p> <p>Natxo Urkixo. Pozten da arazoa ez delako izan hizkuntza.</p> <p>Vecina. Pide que tengan en cuenta que los magnolios que están en la parte delantera de los adosados están imposibilitando el acceso porque las ramas pegan en la cabeza. Además, los magnolios que están junto a la iglesia están creciendo de manera extraña. En el parque de la era hay tres bancos bajo los abedules. En el banco del centro, si te sientas, te tocan las ramas. Están en Gallarreko.</p> <p>Natxo agradece la asistencia y da por finalizada la asamblea a las 20:25 horas.</p>
--	--	---